

Isurtzen ez den isuria

Zer da hau? Esperimentu bat ala truko bat? Batera zein bestera har liteke, edo biak batera. Zalantzarik gabe, oinarrizko indar fisiko pare bat modu berritzailean elkar daitezkeela frogatzen duen erakustaldia da. Gainera, familiako sasijakintsuei merezi dutena emateko modu bikaina da. Edonola ere, inor kexatzen bada, jakina da zer erantzun: “Ez izan oilobustia”.

↓ BEHARKO DUZU

- Litro bateko plastikozko botila bat (tapoi hariduna)
- Tinta iraunkorreko errotuladore bat
- Txintxeta bat

🔍 METODOA


1. Tinta iraunkorreko errotuladorearekin, idatzi ohar nabarmen bat botilaren goialdeko lehen herenean; adibidez, “Ez zabaldu”.
2. Txintxetarekin, egin zulo ñimiño batzuk botilan, eskuz idatzitako letren azpian.
3. Jarri botila harraska edo lapiko batean.
4. Bete botila eta, ahal baduzu, utzi txorrota zabalik tapa hariduna kontu handiz ixten duzun bitartean.
5. Eutsi botilari tapatik, eta jarri botila mahai gainean, eskuz idatzitako oharra kanpora begira.
6. Pazientzia izan, eta itxaron norbait etorri arte. Oharrari buruz galdetzen badizute, esan ez dakizula ezer; jakin-minez, botila irekiko dute.
7. Ura zurrustaka isuriko da txintxetarekin egindako zulotxo ñimiñoetatik.





ZIENTZIA-AITZAKIA

Esperimentu honetan gertatzen denak grabitatearekin eta presioarekin du zerikusia. Ura botilaren behealdetik isurarazteko, biek elkarrekin lan egin behar dute. Botila beteta dagoenean eta goiko aldean airerik batere ez dagoenean, grabitateak ezin du ura beherantz bultzarazi, aireak —eta airearen presioak— bitartekari-lana egitea behar duelako. Indar bera (airearen presioa) da ura zulotxoetan zehar isurtzea eragozten duena. Tapa kentzean, grabitatea eta airearen presioa konbinatu egiten dira botilaren goialdean, eta zulotxoetan barrurantz eragiten duen aireko presioaren indarra gainditzen dute. Ondorioz, oharrari kasurik egin ez dion koitaduaren gainera bat-batean isurtzen da ura zorrotadaka.



KONTUZ!

Esperimentu honen trukoia da botilako urari azkarregi isurtzen ez uztea. Estali zuloak botila goraino betetzen ari zaren bitartean, barruan airerik geratzen ez dela ziurtatzeko. Mugitzen ari zarenean botilari tapatik eutsiz gero, ez duzu botila estutuko —”eiakulazio goiztiarra” gertatzeko beste modu bat—.